

Diru-laguntzak, nahi erara erabiltzekoak, komunitate terapeutikoan tratamendua jasotzen dutenentzat.

Prestazio mota: Bermatua.

Baliabide mota: Behin bakarrik jaso beharreko diru-laguntza.

Baliabidearen xedea: Diru-laguntza, nahi erara erabili beharrekoa, norberaren higienarako produktuak, jantziak, garraioa etab. ordaintzeko komunitate terapeutikoan tratamendua jasotzen ari diren eta baliabide pertsonalik nahiz familiarik ez duten pertsonentzat.

Onuradunak: 18 eta 65 urte bitarte izan eta komunitate terapeutikoan tratamendua jasotzen duten pertsonak.

Jasotzeko baldintzak:

- Laguntza eskatu aurreko bi urteetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.
- Edozein administraziotan eta Gizarte Segurantzaren dagozkion laguntzak, prestazioak, pentsioak edo sorospenak, edozein motatakoak, eskatu izana aldeztu aurretik.
- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak aitortutako komunitate terapeutikoan egonaldia jarraitua egiten ari dela frogatzea, eskaera egin zen unean hiru hilabetekoa edo gehiagokoa dena.
- Gastu xeheak ordaintzeko baliabide ekonomiko pertsonalik ez izatea, ez eta familiako laguntzarik ere.
- Komunitate terapeutikoaren txostena, sarrera eguna, laguntza administratzeko eta emandako zenbatekoa osorik erabiltzen ez bada itzultzeko konpromisoa espresuki adierazten duena.
- Onuradunak onartzea emandako laguntza arreta ematen zaion komunitate terapeutikoak kudea dezan.

Zerbitzuaren intentsitatea: Laguntzaren zenbatekoa hileko LGS halako 1,2 izanen da, sei hilabetetako (hileko LGSaren % 20 hilean), eta sei hilekotan emanen da. Pertsona bakoitzeko, gehienez lau aldiz emanen da laguntza, jarraian izan nahiz ez.

Emateko epea: Berrogeita bost egun.

Jarduteko eremua:
Nafarroako Foru Komunitatea.

